



*Borondatezko lana,  
pertsone orori  
zabaltzen zaion atea*

“... pertsona orok du besteengandik bereizten duen argi berezia. Ez da su berdinek. Batzuek bizitzeko sugar berezia dute; hain dira biziak, begiak kliskatu gabe ezin baitzaie begiratu eta, horiengana hurbiltzean, piztu ere egiten baitzara.”

EDUARDO GALEANO



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Lehendakari  
Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento  
de Presidencia



ALBOAN



Egia esan, interesgarria dirudi...

Bai, baina ez dut oso argi zehazki non jardun daitekeen boluntario gisa...

eta nola har dezakegu parte?

Gauza asko egin daitezke, baina garrantzitsua da oso erakunde baten eta lan-taldeen esparruan egitea. Gainera, oso lotuta daude Iparraldean egiten duguna eta Hegoaldean egiten duguna. Lan-eremu biak txanponaren alde berekoak dira: lehen aipatu dugun pertsona guztientzako bizitza duina bilatzea dute helburu.



Hemen inguruan egin daitezkeen hainbat gauza:

- ➔ Hitzaldi, tailer, ikastaro, erakusketa, kanpaina eta abarren bidez sentsibilizatu.
- ➔ Bidezko merkataritzako taldeetan parte hartu (informatu eta sentikortu, saldu, eskaerak egin, etab.).
- ➔ Hezkuntza-materialak egiten parte hartu.
- ➔ Genero, giza garapen, globalizazio, giza eskubide, gatazken konponbide, hiritar eta abarrei buruzko hausnarketa- eta eztabaida-taldeetan parte hartu.
- ➔ Elkarteetan etorkinekin lan egin.
- ➔ Erakundearen logistikan parte hartu: materialak bidali, kontabilitatea egin...
- ➔ Garapenerako eta hezkuntzarako lankidetzeta-proiektuen segimendua egin.
- ➔ Erakundearen baliabideen edo materialen zentroko datu-base interesgarriak antolatu eta eguneratu.
- ➔ ...

Hegoaldeko pertsona eta erakundeekin zenbait ekintzatan parte hartu, partekatu eta laguntzen diegu; hauetan hain zuzen ere:

- ➔ Boluntarioak, auzoetako buruak... trebatzeko taldeetan.
- ➔ Dokumentatzeko eta ikertzeko taldeetan.
- ➔ Tailerrak, ikastaroak, ikasketa-prozesuak... dinamizatzen.
- ➔ Instalazio elektrikoak egiten, ikastetxeetan...
- ➔ Emakumeen autolaguntzako taldeetan.
- ➔ Komunitateetan hezkuntza sendotzeko taldeetan eta kaleko, aisialdiko... hezitzaileen eginkizunetan.
- ➔ Marketin- eta publizitate-lanak egiteko taldeetan, irriti hezitzaileetan...
- ➔ Kaltetutako eremuetako haur-taldeen aisialdia bultzatzen.
- ➔ Ingurumen-programetan.
- ➔ Gazteekin barmetegi batean bizitzen eta bizikidetzan.
- ➔ Bizilekuz aldatu behar izan dutenekin eta errefuxiatu-taldeekin lan egiten.
- ➔ Nekazarientzako mailegu-proiektuetan.
- ➔ ...

*Gizarte-erakunde askotan egiten dugun lana pertsona boluntario askori esker baino ezin dugu egin. Proiektu bateratuak gauzatzeko, batzuek Hegoako erakundeekin batera egiten dute lan; beste batzuek, ordea, hemen bertan lan egiteko konpromisoa dute, ikastetxeetan, auzoetan eta herrietan. Horiek gabe ezinezkoa litzateke pertsona ororentzat justiziako mundu duina eraikitzeke eginkizunear aurrera egitea.*



ALBOAN



Hemen egiten den lan-esperientziaren bat ezagutu dezakegu, ideia bat izateko?



"Thomas da nire izena eta duela 25 urte iritsi nintzen Ghanatik.

Bilbao Etxezabal, T4 eta Pastoral Penitenciarriako asteburuko talde batekin hasi nintzen boluntarioen munduan.


Batetik, nire denbora librean zerbait egiteko gogoak eraman ninduen horretara, ez bainion inoiz nire denbora inori eskaini.

Bestetik, nire aurrekariak eraman ninduten presoan munduan mugitzera. Hori barru-barrutik atera zitzaidan, nik bai baitakit espetxean egotea zer den; eta horregatik hartu nuen parte horretan.

Bestalde, HIESak jota lagunak galtzen ari nintzela ikusteak mundu horretan sartzeko kemena eman zidan.

Beste kultura batzuetako jendearekin lanean daramatzadan urte horien guztien ondoren, ahal bezain integratuta nagoela esan dezaket, nahiz eta egunero-egunero hainbat alderditan borroka txikiak gainditu behar izan.

Boluntario gisa izan dudana esperientziak eragin handia izan du bai nire bizitzan, baita nire lanean ere. Harro nago bizi izan ditudan esperientzietan ikasi ahal izan dudana egun esperientzia horiek bizi dituzten pertsonen laguntzeko erabil dezakedalako."



"Malentxo naiz eta 55 urte ditut. Duela hiru urtetik ALBOANeko boluntarioa naiz Iruñean, eta garapen-proiektuen eremuan egiten dut lan. Nire lana ALBOANek hainbat erakunderi aurkezten dizkion proiektuak laburtzea da. Hala, horretan parte hartu nahi duten pertsona, ikastetxe eta erakunde orok errazago irakur ditzakete.

Nire lagun batek hauxe esaten du: "bizitzak zentzua hartzen du aurpegiz betetzen denean". Eta egia da, edo gutxienez horrela sentitzen dut nik, proiektu bat irakurri eta duintasunez hazteko aukera emango dien laguntza hori espero duten hamaika aurpegi imajinatzen ditudanean, edo ALBOANen egoitzara iritsi eta nire lankideak mundu justuago bat egiteko lanetan murgilduta aurkitzen ditudanean."



L N



Esaten dutenez, munduan gauzak ezin alda daitezke, beraz... zertarako balio du zuen ahaleginak?

Hori da, benetan ekarpenik egiten du?




Adiskidetasun-loturak egitea, topatzea, trukatzeta, elkarrekin haztea.

Erakundeak, giza sareak, sareak... eraikitzen laguntzea.

Gizakiak mundua aldatzeko eta gure buruak aldatzeko gai garela sinesten dugu. Borondatezko ekintzaren aldeko apustua egiten dugu, garatzen ari den elkartasunezko sarearen barmeko ekarpena izan dadin.

Doakotasuna, buru-belarri aritzea, eskuzabaltasuna...



Beste mundu bat eraikitzeko proposamen zehatz berri eta sendoak.

Beste mundu batean txertatzeko eta mundu hori gure gain hartzeko gaitasuna; beste pertsona batzuek, beste proiektu batzuek barmetik hel diezaguten uzteko gaitasuna, horiekin batera injustiziaren kontrako borrokaren bidea egiteko.

Bai noski, eta asko gainera, **giza garapenaren eraikuntzan...**

Poza, itxaropena, gizatasuna...

Harremanak izateko eta leku alternatiboetatik erantzukizuna partekatzeko modu desberdinak.

Ikuspegi kritikoa, zalantzan jartzeko gaitasuna, salatzeo gaitasuna...

*Boluntarioek egiten dituzten ekarpenek norberaren bizitzan eragiten dute, bai eta talde- edo kolektibo-mailan, pertsona, erakunde eta egituretan ere.*



ALBOAN



Ba... ez duzue ekarpen txikia egiten...  
baina zerbait irabaziko duzue  
trukean, ezta?



"Boluntario izatea elkartasunaren aldeko bizitza-aukera egitea dela konturatu naiz. Hiritar gisa dudana erantzukizunaren eta besteekin erabateko konpromisoa hartzeko beharrenean jakitun egin nau, baina doakotasunaren eta buru-belarri aritzearen ikuspuntutik."



"Boluntario gisa izan dudana esperientziak pentsatzeko moduan eta mundua ikusteko moduan, eta beraz, jarduteko moduan, eragin duela nabarmenduko nuke. Izan ere, boluntario gisa izan dudana esperientzia ez da izan eginkizun jakin bati eskainitako denbora soilik, esperientzia horrek gainerako denbora eta ekintzetan ere eragina izan du. Halaber, nabarmendu nahi nuke gainerako boluntarioekin biltzean esperientziak eta ideiak partekatzea oso garrantzitsua dela."



"Boluntario gisa egin dudana denbora guztian izugarri aberastu naiz, pertsona gisa hazten eta heltzen lagundu dit. Errealitatearekiko sentikortasuna asko handitu zait; orain, askotan, gauzak kontatzen dizkidatenean, barnean min egiten didatela sentitzen dut."

"4 hilabete baino ez daramat Kanbodian; baina gaua iristean eguna nolakoa izan den pentsatzen dudanean, gorputza betetzen didan barne-poza eta bakea sentitzen dut, eta boluntarioen jarduerara hau bizitzea merezi duela iruditzen zait."

"Beste pertsona batzuekin batera bide bat egiten eta taldean lan egiten ikastea oso polita da, zailtasunak zailtasun. Izugarritzko pribilegioa da sortzen ari den talde batean lan egiteko esperientzia bizitzea; horietan askatasun osoa dago edozein gauza zalantzan jartzeko, iritzia emateko, kritikatzeko, zuzentzeko, ideiak proposatzeko; eta taldeko kideak zaindu eta sortzen diren arazoak mahaigaineratu eta aurre egiten zaie."



"Beste jende bat eta beste kultura batzuk ezagutu ditut, eta atsegin handiko harremanak eta lagun berriak egiteko aukera izan dut. Pertsona eta errealitate horiekin asko ikasten dut, desberdinak baitira, eta horiekin ni neu naizena ere partekatzen dut."


*"Encuentros-Casa de la Juventud jardueran, boluntarioen lana gizalegea eta jarduerara fededunak ikasteko aukera ematen duen hezkuntza da. Boluntarioen lanaren aberastasuna (...), funtsean, hiritar eta fededun izateko aukera ematean legoke; hots, bizitzaren kontzeptuak baztertu eta bizitzara bertara hurbiltzea, gutxien dutenen bizitzara hain zuzen ere."*

*JOSE NASCIMENTO. CASA DE LA JUVENTUD. ALBOANekin ELKARLANEAN ARITZEN DEN PERUKO ERAKUNDEA.*



ALBOAN





Bai, baina hori guztia zertan zehazten duzue?

Zer eragin du gure eguneroko bizitzan?

## Erakunde bateko talde-lana



"Bizi dugun errealitatea aldatzen eta hobetzen laguntzeko **denbora eskaintzea** eta **ahaleginak egitea eskatzen du.**"



"Burua **pentsatzeko** eta ahotsa justuak ez direlako min ematen didaten gauzak **salatzeko** erabiltzea."



"Iparraren eta Hegoaren arteko aldearen eta gure arduren inguruan gure lagunak, familia, inguruko jendea eta, oro har, herritarrak **sentikortzea** bultzatzen du."



"Gauzak aldatu nahi baditugu, eraginkor izan behar dugu, eta, borondatezko lana bada ere, ezin dira ardurak salbuetsi. Gogoia eta asmoa ez dira nahikoak; erdietsi nahi duguna lortzeko behar den trebakuntzaz osatu behar dira."

Beraz, gure gizarteak aldatzeko dugun konpromisoarekin batera, beste hiru osagai erabili behar ditugu: **hausnarketa, trebakuntza eta ekintza.**"

Bai gure ingurunean bai Hegoaldeko herrialderen batean aktiboki eta elkartasunez parte hartzea eta bizi behar dugun lekuan eguneroko bizitzaren jakitun, koherente eta kritiko izatea –bai gure buruarekin, bai eta inguruan dugun jendearekin ere– dakar.

Koordinazioa

Sormena

Ardura

Jarraitutasuna

Eta gainera...



ALBOAN




Bueno, baina ikusten dudanez,  
zuek denboraz eta lanaz gain...  
bizitzaren aurrean jarrera bat ere baduzue!



Noski... borondatezko lanak egiteko hartu dugun konpromisoak eragina du gure eguneroko bizitzan; izan ere, bizitza ulertzeko eta bizitzeko moduan, besteekin harremanak izateko, gure inguruan eta munduan gertatzen denaz arduratzeko eta informatzeko moduan, gure kontsumoari buruz hausnartzeko moduan... horietan guztietan eragiten du.

Bai, hauetaz guztietaz ari gara:  
BALIOAK, KONPROMISO  
POLITIKOA, MOTIBAZIOA



Borondatezko lanak eginkizun baten dedikazio mugatua baino gehiago izan behar du. Are gehiago, bizitzako maila eta eremu guztiak biltzen eta horietan errotzen doan izateko modua da.



ALBOAN



*Hegoaldeko esperientziaren bat ezagutzea ere interesgarria litzateke.*



“Banteay Prieb Kanbodiako hiriburutik –Phon Penn– 25 kilometrora dagoen paradisu txikia da. Bueno, hemen, eskolaz gain, mekong gurgildun aulkiak eta zurgintzako, eskulturako eta soldadurako beste zenbait produktu egiten diren produkzio-atal bat ere badago.

Urtean 70 bat ikaslek ikasten dute hemen, baina ikasurtea hasi baino hiru hilabete lehenago, zenbait ikasle berri alfabetatze-ikastaroetara etortzen dira. Alegia, oraintxe ikaslez gainezka gaude, 110 bat ikasle baititugu; ez dut aspertzeko betarik. Izugarri aberasgarria da horiekin tartetxo bat igarotzea. Nik harreman handiagoa dut neskekin. Ikaragarria da! Neska batzuek iritsi zirenean ez zekiten 1etik 5erako zenbakiak idazten ere. Baina hilabete baino gehiago daramate hemen, eta zenbat ikasten duten ikusten dudanean... ez dakit, imajina ezin dezakezun poza sentitzen dut. Bestalde, hemen zenbait kirol egin dezakete: badminton, eskubaloia, ping-ponga, boleibola eta bola-jokoa (Sestaoko bolatokia adinduek jokatzen duten bola-jokoa bezalakoxea). Gauza harrigarriak egin ditzakete. Alegia, ezintasun fisikoak dituzten pertsonen kontzeptua erabat aldatu da.”



“17ko astean Bucaramangan izan nintzen Luchorekin (SJRko laguna), Barranca dagoen departamentuko hiriburuan, Santander departamentuan (Kolonbia). Eskualde bakoitzaren egoera zein den aztertzeko eta guztiok batera eskualdeka aurrera egiteko modua bilatzeko egin zen mintegi hau; GKEak, erakunde publikoak, nazioarteko agentziak (ACNUR, Nazioarteko Gurutze Gorria...) eta Magdalena Medion bizilekuz aldatu behar izan dutenen elkarte eta batzordeak bildu nahi ziren. Niretzat oso interesgarria izan zen; alde batetik, eskualde hartan bizilekuz aldatu behar izan dutenen egoeran eta testuinguruan kokatzen lagundu zidalako ikuspegi orokorrarekin; bestetik, beste erakundeetako jendea ezagutzeko aukera izan nuelako; eta, batez ere, bizilekuz aldatu behar izan dutenen hitza entzutea gustatu zitzaidalako, horiek baitira garrantzitsuenak. Batzuetan isilegi nengoela sentitzen nuen, baina, egia esan, ezagutzen ez dugunaz jarduteak ez du ezertarako balio. Izango dut aurrerago esan beharrekoa esateko astia.

Mintegia Gamarrakoaren antzeko olgetarako parkean egin zen; ostatu hartzeko etxetxo batzuk zeuden, oso leku polita zen eta aire freskoa amasteko eta naturaz gozatzeko aukera izan nuen han. Mintegiaren amaieraren bezperan agur-festatxo bat izan zen; dantza, berriketa eta irri egin genuen.”



ALBOAN





**Bai, zu ere izan zaitezke boluntario.**

Kezkatuta bazaude, ilusioa baduzu, denbora baduzu, beste pertsona batzuekin lan egin eta partekatze gogoaz baduzu eta, halaber, gauzak alda daitezkeela uste baduzu, egin duzu horretan hasteko lehen urratsa.

Denborarekin errealitatea aldatzeko inplikazioan eta konpromisoan aurrera egingo dugu elkarrekin, trebatuz, hausnartuz, parte hartuz, salatuz, beste jende eta herriak ezagutuz eta horiekin urratsak emanez...


Hala, su txikiz osatutako itsasoa eratuko dugu, bakoitzak argi berezia izango duen itsasoa.

Beste mundu bat eraikitzeko dugun irrika, ilusio eta gogoaz ingurukoak kutsatu eta piztuko ditugu, eta guztion artean itsaso hori duintasunezko ozeano bihurtuko dugu.

*Alboanek eskerrak eman nahi dizkie zatirik hobereana hautatzen jakin dutenei eta mundua atsekabez baina itxaropenez begiratzen ikasi dutenei; hots, konpromisoaz gainezka Bai esan dutenei –horrek zer ekarriko dien jakin gabe–, pasibotasunetik, ezjakintasunetik eta individualismotik libratuko dituen jarrera eta hitzak dituztenei.*



ALBOAN



Eta zerk bultzatu zaituzte zuek borondatezko lana egitera eta Hegoaren eta Iparraren arteko harremanen alde lan egitera?

Bizitza egokitu zaidan munduarekin konpromisoa hartzeko modu bat da.

Lagunekin egoteak.

Beste pertsona batzuekin elkartzeko aukera ematen dit. Baita horiekin hausnartzeko, eztabaidatzeko eta lan egiteko aukera ere.



"Beste balio batzuen arabera bizitzen erakusten dit, alegia, bizitza modu gizatiarragoan eta ez hain teknikoan bizitzeko moduak erakusten dizkit, denboraren eta espazioaren beste dimentsio bat, besteek nahi dutenaren arabera erein eta, hainbat belaunaldiren ondoren, gizakiak zer biltzeko prest dauden ikusteko aukera ematen dit."

Ni, bestelako jendea ezagutzeak.



"Guk gure bizitzako 'langa gurutzatzea' erabaki dugu, bi urtez beste aldeko bizitza ikusteko, sentitzeko, usaintzeko, entzuteko eta bizitzeko, hots, bizitzeko beste modu batzuk ere badaudela jakitun izateko."



"Injustizian bizi diren eta egoera ankerrei aurre egin behar dieten pertsoneri lagundu nahi izan diet beti."

Nik beti egin nahi izan dut zer edo zer besteen alde, gauzen egoera hobetzeko nire harri-koskorra ekarri nahi izan dut beti, horrela baliagarriagoa sentitzen bainaiz. Hori adierazten du, hain zuzen, -eta horregatik atsegin dut hainbeste- esaldi honek: "agian pertsona bakar baten parte-hartzea nahikoa izango da elkartasunak munduan bere bidea egin dezan."



"Munduan dauden beharren aurrean ezin zara enpatia hutsean geratu, pertsonalki partaide izan behar duzu."

*Borondatezko lana egiten dutenek, funtsean, nork bere kezak dituzte. Gero helburu berera bideratu beharko dira: pertsona ororentzako mundu gizatiar, atsegin, justu eta duinago bat bilatzea.*



ALBOAN